



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA
CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL



UPV/EHUko PRESTAKUNTZA NAZIOARTEKOTZEKO PLANA

www.ehu.eus

UPV/EHUko PRESTAKUNTZA NAZIOARTEKOTZEKO PLANA

AURKIBIDEA

Atarikoa	5
<i>Prestakuntzaren nazioartekotzeari buruzko txostena</i>	5
<i>Ingelesez ematen diren kredituen ehunekoaren analisia</i>	6
1. Gaur egungo egoeraren diagnostikoa	8
<i>1.1 Barne diagnostikoa</i>	8
<i>1.2 Kanpo diagnostikoa</i>	9
2. Erronkak, helburuak eta ekintzak	11
3. Helburuak eta ekintzak	12
<i>3.1 Erakundea nazioartekotzea</i>	12
<i>3.2 Prestakuntza nazioartekotzea</i>	12
<i>3.3 Unibertsitateko kideek duten nazioarteko esperientzia areagotzea</i>	13
4. Plan Estrategikoa egiteko metodologia	20
ERANSKINAK	21
<i>1. Eranskina</i>	22
<i>2. Eranskina</i>	26

ATARIKOA

Mundu globalizatuan goi mailako hezkuntza nazioartekotzea oinarrizko elementua da, sendo bultzatu beharrekoa. Unibertsitateek bi erronka nagusi dituzte: batetik, gai izan behar dira hizkuntza eta kultura anitzeko inguruan lan egiteko gaitasuna izango duten pertsonak prestatzeko; bestetik, ematen duten prestakuntzagatik nazioartean ezagunak eta aintzat hartuak izan behar dira, horrela, gai izango baitira beste herrialde batzuetako ikasleak erakartzeko.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea mundura irekita dago, eta Europako eta munduko unibertsitateen pare egon nahi du. Horrela, bada, maila hori lortzeko, nazioartekotzea unibertsitateko jarduera guztietara hedatu beharra dago. Beraz, UPV/EHUrentzat garrantzia handikoa da prestakuntzaren nazioartekotzea, eta mundu osoko unibertsitate eta erakundeekin lankidetzan aritzea bultzatzen du.

Nazioartekotzea, baina, ikasleak eta langileak mugikortasun programatan izatea baino gehiago da. Hirugarren hizkuntza batean ikasteko aukera ere bada, curriculuma nazioartekotzea edo nazioarteko titulu bikoitzak bultzatzea; izan ere, ezagutza teknikoez gain, hizkuntza eta kultura gaitasunak lortzea eta inguru aldakorretara egokitzeko gaitasuna gero eta gehiago hartzen dira aintzakotzat lan munduan.

Prestakuntzaren nazioartekotzeari buruzko txostena

UPV/EHUko prestakuntza nazioartekotzekoari buruzko txostena 2018ko otsailaren 1ean aurkeztu zen Gobernu Kontseiluan. Helburuak honakoak ziren: ikastegi bakoitzaren nazioartekotze mailaren deskribapena egitea, aztertutako adierazleen arabera bakoitzaren ahulguneak eta indarguneak errazago ikusteko eta ikastegi bakoitzaren nazioartekotze estrategia diseinatzen laguntzeko. Txosten horretatik honako ondorioak lortu dira:

1. Ikastegi nazioartekotze maila asko aldatzen da batzuetatik besteetara.
2. Nazioarteko programa baten bidez mugikortasunean parte-hartu duten ikasleei dagokienez:
 - a. 2014/15 ikasturtean hasi eta 2017/18 ikasturtera arte, % 33 gehitu da parte-hartzea, eta 1.925 ikasle bidaltzera heldu gara.
 - b. ERASMUS programan 1.100 hitzarmenetik gora ditugu 27 herrialdetan. Ikasle gehienak Italiara (% 38), Alemaniara (% 32) eta Frantziara (% 19) joaten dira.
 - c. LATINOAMERIKAKO programan 90 unibertsitate baino gehiagorekin ditugu hitzarmenak 12 herrialdetan. Mugikortasunerako eskaintzen ditugun plaza gehienak Txile, Kolonbia, Mexiko eta Argentinarako dira, eta, era berean, herrialde horietatik hartzen ditugu ikasle gehien.
 - d. BESTE NORAKO BATZUK programan: 50 unibertsitate baino gehiagorekin ditugu hitzarmenak 12 herrialdetan. Mugikortasunerako eskaintzarik zabalena Estatu Batuetarako, Hego Korearako eta Puerto Ricorako dira. Ikasleek gehien eskatutako herrialdeak Estatu Batuak, Puerto Rico eta Kanada dira.

3. Nazioarteko programen bidez hartzen ditugun ikasleei dagokienez:
 - a. 2014/15 ikasturtean hasi eta 2017/18 ikasturtera arte, % 66 gehitu da parte-hartzea, eta 1.925 ikasle hartzera heldu gara.
 - b. ERASMUS programaren bidez hartutako ikasle gehienak Italiatik (% 22), Frantziatik (% 19) eta Alemaniatik (% 17) datoz.
4. Graduatutako ikasleen artetik 2017/18 ikasturtean mugikortasunean parte-hartu dutenak % 22,5 izan da, eta, beraz, Europar Batasunak 2020rako ezarritako helburua baino gehiago da, helburu hori % 20 baita.
5. 254 AZP ditugu ingelesa egiaztatuta: 16 C2arekin, 42 C1arekin, 124 B2arekin, 68 B1arekin eta 4 A2arekin.
 - a. Ikastegietan AZPkoen artean, 49 langile daude ingeleseko ezagutzarekin.
 - b. Lanpostuen zerrendan 57 lanpostu daude (% 3,68) ingelesa dutenak baldintza espezifikoko moduan lanpostua bete ahal izateko. 11 lanpostuk C1 daukate; 45 lanpostuk B2a eta lanpostu batean ez dago maila zehaztuta, nahiz eta lanpostua betetzen ari denak ingelesa duen ama hizkuntza, eta, beraz, C2 duela esan daiteke.
6. 1.200 irakasle baino gehiago daude hirugarren hizkuntza batean irakaskuntza emateko gaituta (C1 maila).
7. Hizkuntza ez-ofizialetan graduetan ematen den irakaskuntzari dagokionez:
 - a. Graduetan 624 irakasgai baino gehiago ematen dira hizkuntza ez-ofizialetan.
 - b. 5.000 ikasletik gora daude matrikulatuta hizkuntza ez-ofizialetan ematen diren irakasgaietan.
 - c. Araban eta Bizkaian Lehen Hezkuntzako Gradua hiru hizkuntzatan ematen da.
 - d. Graduako tituluen % 50ean ematen dira ingeleseko kredituen % 10a baino gehiago.
 - e. Graduako tituluen % 25ean ematen dira ingeleseko kredituen % 25a baino gehiago.
 - f. UPV/EHUko tituluen % 90ean ematen dira irakasgaiak ingelesez.
8. 1.500 kreditu baino gehiago ematen dira *English Friendly Course* irakasgaietan (graduako edo masterreko irakasgaiak dira, eta gaztelaniaz ematen diren arren, Irakaskuntza Gida, bai eta tutoretzak, zenbait lan, azterketak... ere, ingelesez eskaintzen dira).
9. 2017/18 ikasturtean 38 nazioarteko titulu bikoitz eskaini dira, eta horietatik 20 graduak dira.
10. Gaur egun arte, 3 ikastegitan antolatu da International Staff Week jarduera (Langileen-tzako Prestakuntza Astea).
11. Beste herrialde batzuetako ikasleei dagokienez, hauek dira 2017/18 ikasturteko kopuruak: 903 graduetan, 676 masterretan eta 707 doktoregoan.

Ingelesez ematen diren kredituen ehunekoaren analisia

Prestakuntzaren Nazioartekotze Txostenean ikastegi bakoitzean "Hizkuntza ez-ofizialetan emandako irakasgaiak" ere aztertu dira, eta horietako bakoitzaren kreditu kopurua eta zein mailatan ematen den ere jaso da. Datu hori interesgarria da ikusteko mugikortasun programen bidez datozen ikasleek duten eskaintza hirugarren hizkuntzan ematen diren

irakasgaietan. Hala ere, ez dago informazio nahikoa UPV/EHUko ikasleek duten eskaintza aztertzeko, datuetan ez dago-eta berezitatea ikastegiko titulazioen arteko banaketa, ez eta nahitaezko irakasgaien eta hautazkoen artekoa ere. Beraz, informazioa osatzeko, zehatz aztertu da 2017/18 ikasturtean UPV/EHUko titulu bakoitzean egon den ingelesezko eskaintza, kontuan izan gabe Practicum eta Gradu Amaierako Lana.

Azterlan horretatik honako ondorioak lortu dira:

1. Oro har, ikasleek ingelesez ikas dezaketen kredituen ehunekoa antzekoa bada ere hiru campusetan (% 14 Araban, % 17 Bizkaian eta % 18 Gipuzkoan), ehuneko hori oso desberdina da ikastegi arabera eta titulu arabera.
 - a. Ikastegi batzuetan eskaintza hori % 3koa baino ez bada ere, beste batzuetan, % 55era iristen da.
 - b. Ikastegi berean gerta daiteke eskaintza hori ertaina edo oso handia izan arren titulazioen arteko banaketa oso desberdina izatea (adibidez, % 22a kasu batean eta beste batean, % 58)
 - c. Gertatzen da, era berean, gradu berean alde handia egotea campus batetik bestera.
2. Guztira, masterretan 322 irakasgai eskaintzen dira hizkuntza ez-ofizialetan.
3. 12 master oso osorik ematen dira ingelesez (% 11).
4. 5 masterretan ematen da irakasgaien bat ingelesez (% 15-% 70)

Alde nabarmen horiek erakusten digute estrategia bat ezarri beharra dagoela titulazioko ingelesezko eskaintza prestakuntzako helburuetara egokitzeko.

1. GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

UPV/EHUko Prestakuntzaren Nazioartekotze Txostenean egindako analisia oinarri hartuta, ondoren, egungo egoeraren barne eta kanpo diagnostikoa zehaztuko dugu.

Diagnostikoa egiteko AMIA analisia erabili da, helburua izanik unibertsitatearen faktore estrategiko kritikoak aurkitzea, horrela, faktore horiek behin zehaztuta, indarguneak sendotzeko, ahuleziak zuzentzeko, aukeren abantailei etekina ateratzeko eta mehatxuei aurre egiteko.

1.1 Barne diagnostikoa

Ahuleziak

1. Nazioartekotze maila txikia duten tituluak.
2. Prestakuntzaren nazioartekotzea eta hirugarren hizkuntzan egiten den eskaintza hobetu egin daiteke.
3. Nazioarteko gradu bikoitzen eta titulu bikoitzen kopuru hobetu daiteke.
4. Nazioarteko ikasle gutxi erakartzen dira.
5. Mugikortasunerako hitzarmen gutxi Estatu Batuekin, Kanadarekin, Asiarekin, Erresuma Batuekin eta Europako Iparraldeko herrialdeekin.
6. Desoreka kanpotik datozen eta kanpora doazen ikasleen artean, gehiago izanik kanpora doazenak.
7. IRI eta AZPko langileen mugikortasun maila txikia.
8. Ingeleseko akreditazioa duten AZPko langile gutxi.
9. Plaza hirueledunak ez dira nahikoa.

Indarguneak

1. Nazioarteko sailkapenetan posizio ona.
2. UPV/EHUk aitortua dauka Nazioarteko Bikaintasun Campusaren izaera.
3. Nazioarteko mugikortasunen bat egin duten egresatuen ehuneko handia.
4. Irakasle asko akreditatuta irakaskuntza hirugarren hizkuntza batean emateko.
5. Graduondoko Latinoamerikako Sarea.

6. Ikastegien nazioartekotze mailaren diagnostikoa: zenbait ikastegik nazioartekotze maila handia dute.
7. Kalitatezko nazioarteko hitzarmenen sarea etengabe handitzen ari da.
8. Hizkuntza ez-ofizialetan geroz eta prestatuagoak dauden ikasleak.
9. Ikasleen parte-hartze handia ikasle bisitariak hartzeko programetan (Buddy programa).
10. *English Friendly Course* irakasgaien kopurua geroz eta handiagoa.
11. Doako gaztelania eta euskara ikastaroak ikasle bisitariarentzat.
12. Help Centerrak hiru campusetan eta Bilbon.

1.2 Kanpo diagnostikoa

Mehatxuak

1. Kanpora doazen eta kanpotik datozenen mugikortasunen arteko desoreken eraginez, hitzarmenen galera.
2. Estatuko zein atzerriko unibertsitateek graduoko eta graduondoko eskaintza egiten dute, on-line eta ingelesez.
3. Interes turistiko handiko norakoetan kokatutako unibertsitateak.
4. Nazioarteko mugikortasunerako laguntza kopuru eskasa, eta zenbatekoak hobetu egin daitezke.
5. Hainbat herrialdetan, geroz eta segurtasun gutxiago.

Aukerak

1. Bordeleko Unibertsitatearekin Nazioarteko Bikaintasuneko Euroeskualdea finkatzea.
2. Europako instituzio eta sareen sentsibilizazioa, mugikortasuna eta lankidetzaren bultzatzen duten irakaskuntza ekimenak sustatzeko.
3. Goi mailako hezkuntza erakunde kalitadedunak identifikatzeko nazioarteko rankingek gizaratean duten balorazioa.
4. Prestakuntzaren nazioartekotzea sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren politikak.
5. Ikasteko eta praktikak egiteko geroz eta mugikortasun ekintza eta programa gehiago.
6. Ikasleei nazioarteko titulu bikoitzak interesatzen zaizkie.
7. Graduondokoaren Latinoamerikako Sarearen bitartez, Latinoamerikako unibertsitateetako buruekin harreman ona.
8. Euskal Herriak duen erakarpen indarra, bere ingurune naturalagatik, bizi kalitateagatik, hirietako gizarte bizimoduagatik, eta testuinguru politiko zein gizarte testuinguruagatik.

AHULEZIAK	INDARGUNEAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Nazioartekotze maila txikia duten tituluak. 2. Prestakuntzaren nazioartekotzea eta hirugarren hizkuntzan egiten den eskaintza hobetu egin daiteke. 3. Nazioarteko gradu bikoitzen eta titulu bikoitzen kopuru hobetu daiteke. 4. Nazioarteko ikasle gutxi erakartzen dira graduatarako. 5. Mugikortasunerako hitzarmen gutxi Estatu Batuekin, Kanadarekin, Asiarekin, Erresuma Batuekin eta Europako Iparraldeko herrialdeekin. 6. Desoreka kanpotik datozen eta kanpora doazen ikasleen artean, gehiago izanik kanpora doazenak. 7. IRI eta AZPko langileen mugikortasun maila txikia. 8. AZPko gutxi hirugarren hizkuntza batean akreditatuta. 9. Plaza hirueledunak ez dira nahikoa. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Nazioarteko sailkapenetan posizio ona. 2. UPV/EHUk aitortua dauka Nazioarteko Bikaintasun Campusaren izaera. 3. Nazioarteko mugikortasunen bat egin duten egresatuen ehuneko handia. 4. Irakasle asko akreditatuta irakaskuntza hirugarren hizkuntza batean emateko. 5. Graduondoko Latinoamerikako Sarea. 6. Ikastegien nazioartekotze mailaren diagnostikoa: zenbait ikastegik nazioartekotze maila handia dute. 7. Kalitatezko nazioarteko hitzarmenen sarea etengabe handitzen ari da. 8. Hizkuntza ez-ofizialetan geroz eta prestatuagoak dauden ikasleak. 9. Ikasleen parte-hartze handia ikasle bisitariak hartzeko programetan (Buddy programa). 10. <i>English Friendly Course</i> irakasgaien kopurua geroz eta handiagoa. 11. Doako gaztelania eta euskara ikastaroak ikasle bisitariarentzat. 12. Help Centerrak hiru campusetan eta Bilbon.
MEHATXUAK	AUKERAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Kanpora doazen eta kanpotik datozen mugikortasunen arteko desoreken eraginez, hitzarmenen galera. 2. Estatuko zein atzerriko unibertsitateek gradu eta graduondoko eskaintza egiten dute, on-line eta ingelesez. 3. Interes turistiko handiko norakoetan kokatutako unibertsitateak. 4. Nazioarteko mugikortasunerako laguntza kopuru eskasa, eta zenbatekoak hobetu egin daitezke. 5. Hainbat herrialdetan, geroz eta segurtasun gutxiago. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Bordeleko Unibertsitatearekin Nazioarteko Bikaintasuneko Euroeskualdea finkatzea. 2. Europako instituzio eta sareen sentsibilizazioa, mugikortasuna eta lankidetzaren bultzatzen duten irakaskuntza ekimenak sustatzeko. 3. Goi mailako hezkuntza erakunde kalitadedunak identifikatzeko nazioarteko ranking-ek gizartean duten balorazioa. 4. Prestakuntzaren nazioartekotzea sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren politikak. 5. Ikasteko eta praktikak egiteko geroz eta mugikortasun ekintza eta programa gehiago. 6. Ikasleei nazioarteko titulu bikoitzak interesatzen zaizkie. 7. Graduondokoen Latinoamerikako Sarearen bitartez, Latinoamerikako unibertsitateetako buruekin harreman ona. 8. Euskal Herriak duen erakurpen indarra, bere ingurune naturalagatik, bizi kalitateagatik, hirietako gizarte bizimoduagatik, eta testuinguru politiko zein gizarte testuinguruagatik.

1. taula: Ahuleziak–Mehatxuak–Indarguneak–Aukerak (AMIA), UPV/EHUko prestakuntzaren nazioartekotzeari dagozkionak

2. ERRONKAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK

2018-2021 Plan Estrategikoan jaso bezala, UPV/EHU unibertsitate publiko bat da, gizartearen goi mailako hezkuntza premiei erantzuten diena eta kalitatezko ikerketa gauzatzen duena, lankidetzaz bidez ezagutza sortuta eta gero hura lurralde inguruneari eta nazioarteko komunitateari transferituta. Horrez gain, Euskal gizartean erroturiko unibertsitatea da, munduari irekita dagoena, eta gogoeta eta pentsamendu kritikorako espazio aske bat eskaintzen duena. Era berean, liderra da euskarazko prestakuntzaren arloan, eta bereziki zaintzen du euskal kultura, konpromiso etiko eta sozialaz lan eginez.

2019-2022 aldirako Prestakuntzaren Nazioartekotze Planerako proposamenaren helburua da erronkak lortzeko oinarri hartzea UPV/EHUren 2018-2021 Plan Estrategikoan prestakuntzaren nazioartekotzerako zehaztutako definizioa, ikuspegia eta helburua.

- UPV/EHUren helburua ikasleei kalitatezko prestakuntza ematea da, eta unibertsitate-
tik igarotzean, esperientzia aberasgarri bat izateaz gainera, ikasleak gai izatea tokiko
erronkei nahiz erronka globalei erantzuteko eta modu etiko eta sortzailean jarduteko,
gero eta aldakorragoa eta zorrotzagoa den ingurune batean.

Hori lortze aldera, UPV/EHUK honako erronkak zehaztu ditu prestakuntzaren nazioartekotzearen arlorako:

1. Erakundea nazioartekotzea.
2. Prestakuntza nazioartekotzea.
3. Unibertsitateko kideek duten nazioarteko esperientzia areagotzea.

3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

3.1 Erakundea nazioartekotzea

Erakundea nazioartekotzeko erronkari aurre egiteko, honako helburuak lortu behar dira:

- Itun estrategikoak egitea elkarlanean aritzeko prestakuntzako jardueretan.
- Euroeskualdeko erakundeekin elkarlana sendotzea itunen bidez, batez ere, Bordeleko Unibertsitatearekin, Nazioarteko Bikaintasunaren Euroeskualdearen Campusa indartzeko.
- Graduondoko Latinoamerikako Sarea sendotzea.

Helburu horiek lortzeko honako ekintzak proposatzen dira:

1. 1E.1H.1E. Nazioartean izen handia aitortua daukaten erakundeekin itunak egitea bultzatzea.
2. 1E.1H.2E. Nazioarteko azoketako parte-hartzea eta beste unibertsitate batzuekin topaketak antolatzeko ekimenak bultzatzea.
3. 1E.1H.3E. Staff weeks jarduera bultzatzea.
4. 1E.2H.1E. Bordeleko Unibertsitatearekin Nazioarteko Bikaintasuneko Euroeskualdea garatzea.
5. 1E.2H.2E. Euroeskualdeko unibertsitateekin lankidetzan aritzea mugikortasunerako, tesiak tutorekidetzan egiteko eta titulazio bikoitzetarako.
6. 1E.3H.1E. Graduondoko Latinoamerikako Sareko doktoregaiei laguntzak eskaintzea UPV/EHUn ikerketarako egonaldiak egiteko.
7. 1E.3H.2E. Graduondoko Latinoamerikako Sareko kideen artean komunitate akademikoa sortzea sustatzea.

3.2 Prestakuntza nazioartekotzea

Prestakuntza nazioartekotzeko erronkari aurre egiteko, honako helburuak lortu behar dira:

- Gure prestakuntza eskaintzaren nazioartekotzea sustatzea.
- Gestioaren koordinazioa, prozesuak eta tresnak hobetzea nazioartekotze politika garatzeko.

Helburu horiek lortzeko honako ekintzak proposatzen dira:

1. 2E.1H.1E. Atzerriko hizkuntzetan eskainitako prestakuntza akademikoa zabaltzea eta berrantolatzea.
2. 2E.1H.2E. Graduetan eta graduondokoetan ingeleseko eskaintza zabaltzea.
3. 2E.1H.3E. Lanpostuen Zerrendan plaza hirueledunen kopurua handitzea.

4. 2E.1H.1.4E. Ikasleei profesionalki hainbat herrialdetan jarduteko prestakuntza eskainiko dieten titulu bikoitzak eta baterako tituluak sustatzea nazioarteko bazkide estrategikoekin.
5. 2E.1H.5E. *English Friendly Course* irakasgaien kopurua gehitzea.
6. 2E.1H.6E. i-dual prestakuntza bultzatzea.
7. 2E.1H.7E. UPV/EHUn eskaintzen diren tituluei buruzko informazioa ematea atzerriko ikasleei, arreta berezia eskainita Iparraldeko ikasleei.
8. 2E.2H.1E. Informatikako tresnak (web gunea ingelesez, GAUR...) prestakuntzaren nazioartekotze premietara egokitzea.
9. 2E.2H.2E. Ikastegiei laguntza ematea nazioartekotze estrategiarako.

3.3 Unibertsitateko kideek duten nazioarteko esperientzia areagotzea

Unibertsitateko kideek duten nazioarteko esperientzia areagotzeko erronkari aurre egiteko, honako helburuak lortu behar dira:

- Ikasketetarako, praktiketarako eta prestakuntzarako mugikortasuna areagotzea Europan eta Europatik kanpoko herrialdeekin, batez ere, Estatu Batuekin, Kanadarekin, Asiarekin, Erresuma Batuarekin eta Europako Iparraldeko herrialdeekin.
- Nazioarteko bisitariak erakartzeko ekimenak sustatzea.
- Prestakuntza indartzea eta hizkuntza eta kultura arteko gaitasunen akreditazioa bultzatzea.

Helburu horiek lortzeko honako ekintzak proposatzen dira:

1. 3E.1H.1E. Deialdi espezifikokoak egitea unibertsitateko kolektibo desberdinen mugikortasunerako.
2. 3E.1H.2E. Ikastegietan eta unibertsitateko zerbitzuetan ingelesez ematen den arreta areagotzea.
3. 3E.1H.3E. Mugikortasun programen bidez kanpora doazen eta kanpotik datozen ikasleentzako gogobetetze maila neurtzea hobekuntza ekintzak ezartzeko.
4. 3E.2H.1E. Ikasle nahiz irakasle-ikertzaile bisitariei harrera egiteko zerbitzua hobetzea.
5. 3E.2H.2E. Ikasle bisitariak hartzeko *buddy* programa finkatzea.
6. 3E.2H.3E. Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak gestionatzea.
7. 3E.2H.4E. Campus bereko ikastegietan atzerriko hizkuntzetan ematen diren irakasgai bateratuen eskaintza zabaltzea.
8. 3E.3H.1E. Kulturarteko prestakuntza jarduerak antolatzea kidego guztientzat.
9. 3E.3H.2E. Prestakuntza ikastaroak atzerriko hizkuntzetan egitea sustatzea eta egiaztatzerako erraztasunak ematea.
10. 3E.3H.3E. Bertako eta atzerriko ikasleentzako arteko interakzioa bultzatzeko jarduerak antolatzea.
11. 3E.3H.4E. Nazioarteko Sakontze Egiaztatzea hedatzea

Erronka: 1. ERAKUNDEA NAZIOARTEKOTZEA.

Helburua: 1.1.- Itun estrategikoak egitea elkarlanean aritzeko prestakuntzako jardueretan.

Deskribapena: UPV/EHU nazioartekotzeko, beharrezkoa da unibertsitate sareetan sartzea eta akordioak eta itunak egitea gure unibertsitateari balioa erantsiko dioten beste herrialde batzuetako unibertsitateekin. Hori guztia estrategia baten baitan egin beharra dago, mota horretako hitzarmenak egiteko zein unibertsitate eta zein jakintza arlo aukera behar den bideratuko duena. Itunak egiteko, itunak ekarriko dituen aukerak izan behar dira kontuan, ez leku geografikoa. Beraz, bazkideak arreta handiz aukeratu behar dira, zenbait parametro oinarri hartuta egin beharko den analisi zehatzaren bidez: lehendik izandako harremana, erakundearen profila, aniztasun geografikoa, sinergia posibleak, bikaintasuna, gaitasun teknikoa, osagarritasuna eta abar. Era berean, arreta berezia eskaini behar zaio unibertsitateak duen harreman sareari, bai eta UPV/EHUK inguruan dituen ekoizpen sektoreari eta erakundeei ere. Nazioarteko azoketara joatea eta bazkide estrategikoekin topaketak antolatzea ezinbestekoa da proposatutako helburuak lortzeko.

Bestalde, hitzarmen berriak sinatzeaz gain, beharrezkoa da ondo aztertzea jada sinatuta daudenak balioa eransten dutenak baino ez berritzeko. Horrela, bada, kalitatea izan behar da oinarri, ez kantitatea, horrek isla izango baitu kasuan kasuko adierazlean.

Adierazleak:

1.1.1.- Mugikortasun hitzarmenen bidez bazkide den nazioarteko unibertsitate kopurura

	Abiapuntuko datua	Hasiera urtea	2019	2020	2021	2022
1.1.1. adierazlea	696	2018	710	710	710	710

Helburua: 1.2.- Euroeskualdeko erakundeekin elkarlana sendotzea itunen bidez, batez ere, Bordeleko Unibertsitatearekin, Nazioarteko Bikaintasunaren Euroeskualdearen Campusa indartzeko.

Deskribapena: Euroeskualdearen baitan bultzatu nahi da nazioartean erakargarria izango den irakaskuntza eskaintza, eskualdeko unibertsitateen arteko mugikortasuna sustatuko duena, graduko eta masterreko nazioarteko gradu bikoitzak garatuko dituen, bai eta elkarrekin antolatutako masterrak eta tutorekitzan egindako tesiak ere. Estrategia honetan, batez ere Bordeleko Unibertsitatearekin egingo da lan.

Adierazleak:

1.2.1.- Euroeskualdeko unibertsitatearen batean ikasteko mugikortasun programaren bat egin duen ikasle kopurua

1.2.2.- Euroeskualdeko unibertsitateekin dauden titulu bikoitzak edo batera antolatuak

	Abiapuntuko datua	Hasiera urtea	2019	2020	2021	2022
1.2.1.- adierazlea	25	2017-2018	28	32	35	40
1.2.2.- adierazlea	14	2017-2018	17	20	22	25

Helburua: 1.3.- Graduondoko Latinoamerikako Sarea sendotzea.

Deskribapena: Graduondoko Latinoamerikako Sarean, egun, Latinoamerikako hamabost unibertsitate daude, eta zuzenbidea, ekonomia, filosofia, meatzeak eta psikopedagogia arloetako master ofizialak eta doktoregoak eskaintzen dituzte. Tituluotako prestakuntza unibertsitate horietako bakoitzean ematen da.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak laguntzak ematen ditu sarekoak izanik UPV/EHUko doktorego programetan matrikulatuta dauden doktoregiantzat, laguntza horien helburua izanik gure unibertsitatean egonaldiak egitea tesi zuzendariarekin harremanetan egoteko. Diru laguntza horiekin bidaia eta egonaldien gastuak (hilabete batetik hiru hilabetera bitartean) ordaintzen dira.

Sare hau osatzen duten unibertsitateek, gure unibertsitatearekin batera, maila handieneko komunitate akademiko bat eratzen dute. Aldiro biltzen dira (bi urterik behin) nazioarteko kongresu batean doktoregaiek beren ikerketetan egiten dabiltzan aurrerapenak aurkezteko. Sarea sendotzen eta garatzen egon den urte hauetan, Latinoamerikako mila ikasletik gora matrikulatu dira programa hauetan UPV/EHUn.

Adierazleak:

1.3.1. Sarean defendatutako tesi kopurua.

	Abiapuntuko datua	Hasiera urtea	2019	2020	2021	2022
1.3.1.- adierazlea	10	2018	11	12	13	14

Erronka: 2. PRESTAKUNTZA NAZIOARTEKOTZEA.

Helburua: 2.1.- Gure prestakuntza eskaintzaren nazioartekotzea sustatzea.

Deskribapena: Gure ikasleen prestakuntza hobetze aldera eta atzerriko ikasleak erakarri ahal izateko, komenigarria da ingelesezko eskaintza gero eta handiagoa izatea, bai graduetan, bai graduondokoetan. Asmoa da ikasleek kreditu kopuru zabala egitea ingelesez UPV/EHUko edozein titulutan. Horretarako, ikastegien eta sailen arteko koordinazioa bultzatu behar da eta 30 kreditutik gorako irakasgai blokeak sortu graduko tituluetan eta masterretan. Era berean, lehentasuna emango zaie gradu desberdinetan ematen diren oinarrizko irakasgai (taldekatuak), horrela eskaintza ahalik eta ikasle multzorik zabalenera hedatzeko, eta, horrez gain, eskaintza horrek taldeak gehiegi sakabanatzea saihesteko. Horrez gain, lauhileko eta maila berean irakasgai nahikoa eskaintzea bultzatuko da, era horretara eskaintza erakargarriagoa izan baitaiteke mugikortasunaren bidez atzeritik datozen ikasleentzat. *English Friendly Course* irakasgaiak ere gehituko dira, betiere, hirugarren hizkuntzan ematen diren irakasgaien eskaintza koordinatuta.

Edozelan ere, ikastegien eskaintza koherentea izan behar da gradu bakoitzeko matrikula kopurua eta sailen irakaskuntza ahalmena kontuan hartuta.

Era berean, erraztasuna emango da IRlen lanpostuen zerrendan plazen hizkuntza eskakizuna aldatzeko eta bermatzeko plaza hirueledunen kopurua egokia dela sailak hirugarren hizkuntza batean eskaintzen dituen irakasgai kopururako.

Hori guztia Eleaniztasun Estrategian dago jasota, eta horrek aukera eman die ikastegiei, sailekin lankidetzan, titulazioen egungo egoera aztertzeko eta lortu beharreko helburu kuantitatibo eta kualitatiboak zehazteko, bai eta datozen 4 urteetan helburuak betetzeko egin beharreko ekintzak zehazteko ere (ikusi 2. eranskina).

Bestalde, UPV/EHUk ikasleei profesionalki hainbat herrialdetan jarduteko prestakuntza eskainiko dieten titulu bikoitzak eta baterako tituluak sustatu nahi ditu nazioarteko bazkide estrategikoekin. Horretarako, aurrera egin behar da beste bazkide batekin edo batzuekin elkarlanean bide luzea egin duten tituluetarako programa egituratuak diseinatzeko lanean, akordioak lortzeko eta hartara, bazkideen artean adostutako ibilbide akademikoa osatzen duten ikasleek aukera izan dezaten unibertsitate bakoitzeko titulu bat lortzeko.

Garrantzitsua da ere beste unibertsitate batzuetako ikasle atzerritarrak erakartzea gurera, eta horretarako beharrezkoa da ikasle atzerritarrei UPV/EHUko tituluei buruzko informazioa ematea, batez ere Iparraldeko ikasleei.

Adierazleak:

2.1.1. Hizkuntza ez-ofizialetan eskainitako ECTSak %/titulazioak guztira (graduak/masterrak) (1)

2.1.1. Hizkuntza ez-ofizialetan akreditutako IRlen % (2)

2.1.3. Nazioarteko titulu bikoitzak edo titulu bateratuak.

2.1.4. Nazioarteko ikasleen % (gradua/masterrak/doktoregoa).

Deskribapena:

- (1) Datu hauek uztailaren 31koak izango dira, bigarren urteari dagozkionak
 (2) Izendatzailea: irakats lana duten IRIak, arduraldia kontuan izan gabe.

	Abiapuntuko datua	Hasiera urtea	2019	2020	2021	2022
2.1.1.- adierazlea	6,83 / 11,78	2018	7,50 / 12,50	8,00 / 13,00	9,00 / 14,00	10,00 / 15,00
2.1.2.- adierazlea	21,76	2017-2018	23,00	24,00	25,00	26,00
2.1.3.- adierazlea	20/14	2018	21/16	23/18	25/20	27/22
2.1.4.- adierazlea	2/14,3/20	2018	2,1/14,4/20,5	2,2/14,5/21	2,3/14,6/21,5	2,4/14,7/22

Helburua: 2.2. Gestioaren koordinazioa, prozesuak eta tresnak hobetzea nazioartekotze politika garatzeko.

Deskribapena: UPV/EHUren web guneak aukera eman behar die gure ikasle izan daitezkeen atzerriko ikasleei eta ikertzaile bisitari izan daitezkeenei ingelesez lortzeko gure unibertsitateak nazioartera begira dituen indargunei buruzko informazioa. Gainera, aplikazio ego-kia izan behar dugu nazioartekotzeak dakartzan gestio prozesuak bideratzeko. Horretarako, beharrezko da GAUR eguneratzea.

Era berean, laguntza eman zaie ikastegiei nazioartekotze estrategiak gara ditzaten.

Erronka: 3. UNIBERTSITATEKO KIDEEK DUTEN NAZIOARTEKO ESPERIENTZIA AREAGOTZEA

Helburua: 3.1. Ikasketetarako, praktiketarako, prestakuntzarako eta ikerketarako mugikortasuna areagotzea Europan eta Europatik kanpoko herrialdeekin, batez ere, Estatu Batuekin, Kanadarekin, Asiarekin, Erresuma Batuarekin eta Europako Iparraldeko herrialdeekin.

Deskribapena: Helburua da ikasleek, irakasle-ikertzaileek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek nazioarteko mugikortasun programetan duten parte-hartzea areagotzea.

Ezinbestekoa da mugikortasun programen bidez kanpora doazen eta kanpotik datozen ikasleen gogobetetze maila neurtzea hobekuntza ekintzak ezartzeko.

Adierazleak:

3.1.1. Mugikortasun programetan parte-hartzen duten UPV/EHUko egresatuak % (graduak)

3.1.2. Erasmus mugikortasun programan parte-hartzen duten IRI eta AZP kopurua.

	Abiapuntuko datua	Hasierra urtea	2019	2020	2021	2022
3.1.1.- adierazlea	22,4	2017-2018	22,6	22,8	23	23,2
3.1.2.- adierazlea	77	2017-2018	95	100	105	110

Helburua: 3.2. Nazioarteko bisitariak erakartzeko ekimenak sustatzea.

Deskribapena: Helburua da atzerriko bisitariak erakartzeko bideak indartzea. Horretarako beharrezkoa da beste herrialde batzuetako irakasleak, ikertzaileak eta ikasleak erakartzeko eta hartzeko prozesuak hobetzea. Ikastegietan eta zerbitzuetan ingelesez dakien jendea izatea izango da helburua lortzeko bidea. Gure unibertsitateak eskaintzen duen zerbitzuetako bat Buddy programa da. UPV/EHUko Nazioarteko Harremanen Bulegoak eskaintzen du zerbitzua eta ikasle atzerritarrei (Erasmus, Beste Norako Batzuk, Latinoamerika) laguntza ematen die hirian eta campusean mugitzeko.

Horrez gain, UPV/EHUk campus guztietan gaztelaniazko eta euskarako ikastaroak ditu ikasle bisitariarentzat.

Zenbait titulutan txikia da atzerriko ikasleei hizkuntza ez-ofizialetan egiten zaien eskaintza, eta, beraz, zabaldu egin beharko da campus bereko ikastegiekin elkarrekin ematen dituzten irakasgaien kopurua.

Adierazleak:

3.2.1. Mugikortasun programen bidez hartzen diren ikasleak % tan(graduak/masterrak).

3.2.2. Mugikortasun hitzarmenetan bazkide tutako unibertsitateen kopurua.

	Abiapuntuko datua	Hasiera urtea	2019	2020	2021	2022
1.9.- adierazlea	2,50	2017-2018	2,55	2,60	2,65	2,70
1.11.- adierazlea	696	2018	710	710	710	710

Helburua: 3.3. Prestakuntza indartzea eta hizkuntza eta kultura arteko gaitasunen akreditazioa bultzatzea.

Deskribapena: Ikasleen, IRlen eta AZPkoen hizkuntza eta kultur arteko gaitasunak sendotzea onuragarri izango da langune globalizatua sortzeko eta erakundearen nazioartekotzea areagotzeko. Unibertsitateko kide guztien hizkuntza maila hobetzea, batez ere ingeleza, onuragarri izango da ere ikasleak lan merkatu globalizatuan sartzeko. IRlen kasuan bi izango dira helburuak: batetik, irakaslana hirugarren hizkuntza batean emateko egiaztatuta eta atzerriko ikasleei laguntzeko gaituta dagoen ikasle kopurua gehitzea, eta, bestetik, nazioartean garrantzitsuak diren proiektu, foru eta itunetan parte-hartzeko erraztasun gehiago izatea. AZPkoen kasuan, bestalde, prestatuta egongo dira unibertsitatean gero eta gehiago diren kide atzerritarrei zerbitzu hobea emateko.

4. PLAN ESTRATEGIKOA EGITEKO METODOLOGIA

Plana hiru fasetan egin da: lehenengo fasean, eskaria egin zitzaizen ikastegiei beren nazioartekotze estrategia garatzeko, eta beraiekin batera aztertu genuen; gero, bigarren fasean, proposamena prestatu da eta bertan bildu dira ikastegiek banakako estrategian bildu dituzten punturik garrantzitsuenak, eta beraiekin kontrastatu da; azkenik, hirugarren fasean, plana Gobernu Kontseiluan aurkeztu da.

1. **Lehenengo fasean** ikastegien gogoeta bultzatu da nazioartekotze maila hobetzeko behar duten estrategia lantze aldera. Lana errazteko, hainbat galdera eman zitzaizkien (ikus 1. eranskina), gai hauen ingurukoak: mugikortasuna, nazioarteko harremanak, etxeko nazioartekotzea, hizkuntza gaitasuna, nazioarteko jarduerak eta baliabideak zabaltzeko eta ezagutzera emateko plana. Informazio guztia bildu ondoren, bilera egin da ikastegi bakoitzarekin zenbait gai argitzeko eta estrategia nola bideratu aztertzeko.

2. **Bigarren fasean**, proposamena landu da eta erronkak, helburuak eta ekintzak zehaztu dira oinarri hartuta ikastegiak adierazitako gai estrategikoak; ondoren, ikastegiei ekarpenak egiteko eskaria egin zaie.

Kanpoko parte-hartzea antolatzeko, Gizarte Kontseiluaren laguntza izan dugu, eta eskaria egin zaie ekarpenak egiteko.

3. Azkenik, azken fasean, plana osatu da Gobernu Kontseiluan aurkeztu, eztabaidatu eta onartzeko.

2019-2022 aldirako Nazioartekotze Plana osatzeko kontuan izan dira UPV/EHUren Plan Estrategikoa (2018-2021) eta Unibertsitate Plana (2019-2022), nazioartekotze plan hau beste bien ildo berean egon behar baita.

Jarraipena egiteko, helburu bakoitzerako zehaztutako adierazleerako datuak bilduko dira urtero, eta ikastegi bakoitzean nazioartekotze gaietarako arduradunari aurkeztuko zaizkio urtero.



ERANSKINAK

1. ERANSKINA/ ANEXO 1

NAZIOARTEKOTZE ESTRATEGIA / ESTRATEGIA DE INTERNACIONALIZACIÓN

Ikastegia / Centro

Nazioartekotze strategiaren laburpena (10-15 lerro gehienez) / Breve resumen de la estrategia de internacionalización (10-15 líneas máximo)

Empty text area for the summary of the internationalization strategy.

Mugikortasuna / Movilidad

Arautegia (web) / Normativa (web)

Empty text area for the regulations/normative of mobility.

Sartzeko eta irteteko mugikortasunen helburu kuantitatibo eta kualitatiboak / Objetivos cuantitativos y cualitativos de la movilidad entrante y saliente

Empty text area for the quantitative and qualitative objectives of mobility.

Nazioarteko harremanak / Relaciones Internacionales

Lehentasunezko gune geografikoak / Áreas geográficas prioritarias

Empty yellow box for content.

Erasmus eta alde biko hitzarmenak / Convenios Erasmus y Bilaterales

Empty yellow box for content.

Nazioartekotzea etxean / Internacionalización en casa

Graduko eta/edo masterreko baterako titulazio posibleak /
Posibles titulaciones conjuntas de Grado y/o Máster

Empty yellow box for content.

Irakaskuntza ingelesez / Docencia en Inglés

Empty yellow box for content.

Hizkuntza trebakuntza / Capacitación lingüística


Ikasleak / Estudiantes

Irakasleak / Profesorado

Nazioarteko jarduerak zabaldu eta ezagutzera emateko plana / Plan de difusión y visibilidad de las actividades internacionales

Baliabideak / Recursos

OHARRAK / OBSERVACIONES



2. ERANSKINA/ ANEXO 2

ELEANIZTASUN ESTRATEGIA / ESTRATEGIA DE PLURILINGÜISMO

IKASTEGIA: KODEA IZENA
CENTRO: CÓDIGO NOMBRE

2. SARRERA/ INTRODUCCIÓN

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren helburu nagusietako bat da gure unibertsitateko ikasketak nazioartekotzea. Horretarako, graduen eskaintza eleaniztuna sustatu nahi du, bai UPV/EHUko ikasleentzat eta bai ikasle bisitariarentzat. Era berean, funtsezkoa da gure ikastegi eta zerbitzuetan egotea bisitariekin ingelesez egiteko gai diren langileak.

Xede hori lortzeko, ezinbestekoa da ingelesez (edo halakorik ezean, frantsesez) ematen diren irakasgaiak finkatzea eta haien kopurua handitzea UPV/EHUko gradu guztietan.

Horretarako, beharrezkoa da ikastegi eta sail guztiek hizkuntza plangintza bat egitea, titulazio bakoitzerako egokia eta baliabide propioekin luzerako irauteko modukoa. Hala ere, errektoreordetza honen asmoa da irakasgai horiek abian jartzeko prozesuaren lehen urteetan ikastegiei laguntza ematen jarraitzea, irakasgaiak hizkuntza ez-ofizialetan emateko urteroko deialdiaren bidez, betiere horretarako baldintzak betetzen badira eta aurrekontuak modua ematen badigu.

Eskaintza planifikatzean honako puntu hauek hartu beharko dira kontuan:

- Komeniko litzateke graduko titulazioetan gutxienez 30 ECTS eskaintzea hirugarren hizkuntzetan, hartara prestakuntzaren parte horrek behar besteko tokia izan dezan bertoko ikasleen nahiz ikasle bisitarien esperientzia akademikoan.
- Hobe da gradu batean baino gehiagotan ematen diren gaiak eskaintzea - hau da, oinarrizkoak, adarreko oinarrizkoak edo nahitaezkoak -, ikasle gehiagoren interesekoak izango baitira.
- Komenigarria da eskaintzen diren gaiak azken mailetakoak izatea eta lauhileko berean ematea, horrela mugikortasun programetan datozen ikasleek egin ahal izan ditzaten.

Eskaintza planifikatzeko, beharrezkoa izango da kasuan kasuko hizkuntzetan irakasteko akreditatuta dauden irakasleak edukitzea. Bestalde, ingeleseko irakaskuntza sendotzeko gomendagarria da lehiaketara ateratzen diren irakasle-ikertzaile plazak hirueledun bihurtzeko eskaria egitea. Hala ere, horretarako beharrezkoa izango da aukera hori behar bezala aurreikustea eta justifikatzea oraingo estrategian.

Esan bezala, funtsezkoa da, halaber, gure ikastegietan egotea bisitariekin ingelesez egiteko gai diren administrazio eta zerbitzuetako langileak. Horretarako, zehaztu behar da zein plazatarako beharko litzatekeen ingeleseko hizkuntza eskakizun zehatz bat, hartara eskakizuna aldatu dakien plaza horiei, behar diren gestio eta negoziazioen ostean.

Uste dugu helburu horietarako estrategia diseinatzean funtsezkoa dela zerikusia duten ikastegi eta sail guztiek prozesuan parte hartzea. Horregatik guztiagatik, mesedez eskatzen dizuegu honako dokumentu hau adostasunean betetzeko eta Ikastegiko Batzordean onartzeko.

El Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales cuenta entre sus objetivos prioritarios impulsar la internacionalización de la formación a través de la promoción de una oferta de grado plurilingüe dirigida tanto al alumnado de la UPV/EHU como a los y las estudiantes visitantes. También resulta fundamental disponer en nuestros centros y servicios de personal que pueda atender en inglés a las personas visitantes.

Consolidar e incrementar el número de asignaturas impartidas en inglés (o, en su defecto, en francés), en todos los grados de la UPV/EHU resulta indispensable para la consecución de este objetivo.

Para ello, es necesario que los centros y departamentos realicen una planificación lingüística adecuada a cada titulación y sostenible en el tiempo mediante recursos propios. No obstante, desde este Vicerrectorado se contempla seguir proporcionando ayuda a los centros en los primeros años de implementación de tales asignaturas mediante la convocatoria anual para la autorización de docencia en lenguas no oficiales, siempre y cuando se cumplan los requisitos exigidos y el presupuesto lo permita.

Al planificar la oferta, se deberán tener en cuenta los siguientes aspectos:

- Sería conveniente ofertar en las titulaciones de Grado un número mínimo de 30 ECTS en terceras lenguas para favorecer una presencia significativa de las mismas en la experiencia académica del alumnado local y visitante.
- Es preferible potenciar la oferta de asignaturas que, por su carácter de básicas, básicas de rama u obligatorias, se oferten en distintos Grados ya que contarán con un mayor potencial de alumnado interesado.
- Es aconsejable ofertar asignaturas de los últimos cursos que se impartan en un mismo cuatrimestre, ya que así serán especialmente accesibles para el alumnado de movilidad.

Para realizar la planificación de la oferta será preciso contar con el profesorado acreditado necesario. Es también aconsejable consolidar la docencia en inglés a través de la solicitud de cambio de perfil a trilingüe de las plazas de Personal Docente e Investigador (PDI) que salgan a concurso, aunque en este caso esta posibilidad deberá haber sido prevista y debidamente justificada en la presente estrategia.

Como se ha comentado, resulta también esencial disponer en nuestros centros y servicios de Personal de Administración y Servicios (PAS) que pueda atender en inglés a las personas visitantes. Para ello, resulta necesario identificar aquellas plazas que requieren un determinado perfil de inglés para solicitar, tras realizar las gestiones y negociaciones necesarias, el cambio de perfil de las mismas.

Consideramos esencial a la hora de diseñar una estrategia que permita alcanzar los objetivos mencionados, la participación de todos los centros y departamentos implicados. Por ello, os pedimos que, por favor, cumplimentéis el siguiente documento de forma consensuada y que lo aprobéis en Junta de Centro.

3. Irakaskuntza eskaintza / Oferta docente¹

Egungo egoera titulazio bakoitzean / Situación actual en cada titulación.

Titulazioa / Titulación: XXX Grada / Grado en XXX									
Saila Dpto	Irakasgaia Asignatura	Maila Curso	Lauhil. Cuatr.	Kred Cred	Hizkuntza Idioma	Matrikulatuak Matriculados/as			
						15/16	16/17	17/18	18/19

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak / Objetivos cuantitativos y cualitativos

Helburuen lorpenerako ekintzak / Acciones a emprender para la consecución de los objetivos

¹Jasotako irakasgaiak 2018/19 ikasturtean eskainitakoak dira eta matrikulen kopurua 2018/10/23an GAURen jasotakoak dira / Las asignaturas recogidas son las ofertadas en el curso 2018/19 y el número de matrículas es el recogido el 23/10/2018 en GAUR

3. English Friendly Course irakasgaiak / Asignaturas English Friendly Course ²

Egungo egoera titulazio bakoitzean/ Situación actual en cada titulación.

Titulazioa / Titulación: XXX Gradua / Grado en XXX					
Irakasgaia / Asignatura	Maila Curso	Lauhil. Cuatr.	Kred Cred	Matrikuluak Matriculados/as	
				17/18	18/19

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak / Objetivos cuantitativos y cualitativos

Helburuen lorpenerako ekintzak / Acciones a emprender para la consecución de los objetivos

4. Irakasle akreditatuak / Profesorado acreditado³

Egungo egoera ikastegian edota atalean / Situación actual en el centro y sección⁴

Saila Departamento	Ingelesa Inglés	Frantsesa Francés
Guztira / Total		

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak / Objetivos cuantitativos y cualitativos

Helburuen lorpenerako ekintzak / Acciones a emprender para la consecución de los objetivos

³ Irakasle akreditatuen zerrenda izen abizenekin I Eranskinean jasota dago / El listado de profesorado acreditado con nombre y apellidos se encuentra recogido en el Anexo I

⁴ Irakasle akreditatuen datuak 2018/10/25 GAURen jasotakoak dira / Los datos del profesorado acreditado son los recogidos en GAUR el 25/10/2018

5. Eskuragai dauden hirueledun plazak / Plazas trilingües disponibles


Egungo egoera ikastegian edota atalean / Situación actual en el centro y sección

Helburu kuantitatibo eta kualitatiboak / Objetivos cuantitativos y cualitativos


Helburuen lorpenerako ekintzak / Acciones a emprender para la consecución de los objetivos

6. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala / Personal de Administración y Servicios

Egungo egoera zentruan / Situación actual en el centro



*Arren, gaur egun dagoen AZP plazaren bat aldatzea proposatzea
beharrezkotzat jotzen bada, proposamen horren arrazoiak esplizitu egin. /
Rogamos que, si se considera necesario plantear el cambio de RPT de alguna de las
plazas de PAS de las que se dispone en la actualidad, se expliciten las razones de
dicha propuesta.*



7. OHARRAK / OBSERVACIONES

SINATUTA / FIRMADO:

Dekanoa-Zuzendaria / Decana/o- director/a:

Administrazio burua / Jefe de administración

Ikastegiko Batzordeko akordioaren data / Fecha del acuerdo de la Junta de Centro:

I. **Eranskina / Anexo: Irakasle akreditatuen zerrenda / Listado de profesorado acreditado**

Saila Departamento	Izena Nombre	Ingelesa Inglés	Frantsesa Francés
Guztira / Total			